



## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza

Igandea  
2009-03-08

VII. URTEA 1.648. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Iruran, emakumeek kontzertua eskaini zuten elizan; irudian, Miriam Aizpurua (biolina) eta Ane Artola (gitarra). N. URBIZU

## Alegiako bertso eskolak lortu du lehen puntua desafioan

**TOLOSALDEA** Bertsolar HITZAren lehen saioan Alegiako eta Ibarako eskolak lehiatu ziren 4



Plazan elkartu ziren Castro eta Garmendiaren ahaide eta lagunak. ESTI EZEIZA

## MOREZ JANTZI DITUZTE EMAKUMEEK ESKUALDEKO TXOKOAK

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** Gehienbat emakumeek hartu dute parte Emakumearen Nazioarteko Egunean antolaturiko ekitaldietan 5

## «Bi atxilotuei eman diezuen babes» eskertu dute

**VILLABONA** Ezker abertzaleak EAJren sarrera gogor salatu zuen atzo eginiko agerraldian 7

**Berria**  
Txapelketako  
finalerdia  
igaro dira  
Aurrera-Saiaz

**TOLOSA** Atzo Huarteren aurka aritu ziren Beotibarren eta «erraz» gailendu ziren 4

**JOXE GASTESI** ABESBATZA ZUZENDARIA ETA IDAZLEA

«Galdu egin da garai bateko berdintasuna eta alaitasuna»

**ALEGIA** Hamaika proiektu eraman ditu aurrera, besteak beste, Txintxarri abesbatza sortu zuen 6



J. SAIZAR

**Auzolanaren**  
filosofia  
berreskuratuz,  
Laxarbe ondo  
garbitu dute

**ANOETA** Kultur Astearen baitan egin dute; hilaren 14an berriro ariko dira 7

## Horrela gabilza



### » Uzturretik

#### Iratxe Etxebeeste

**A**urreko hilean Madrilgo Genova kalean ibili ginen gora eta behera. Gure lagun Eneko Gallarraga epaitzen zuten Auzitegi Nazionalan.

Epaitzen zuten urtebete Frantziako eta Espainiako kartzeletan eman eta gero. Eta epaitzen zuten bost bat urte lehenago ETArekin kolaboratu zuelakoan.

Oraindik ez dute ezer frogatu.

Bildu ginen dozenaka euskal herritar. Gure aurrean hiru epaile, Espainiako estatuko fiskala, idazkaria, auskalo zenbat polizia, eta zeren truke kobratzen duten jakiterik ez dagoen beste pertsonaren bat edo beste.

Konfiantzako abokatuak baino ez zidan niri konfiantza eman leku, mundu arrotz hartan.

Hasi zen epaiketara deitzen dioten hori. Tenis partida batean bezala, begiradak hara eta hona. Puntu bat eta beste bat gure alde. Eta, hala ere, ezin lasai atera epaiketara deitzen dioten zirku horretatik. Ez baita ezer berria set guztiak irabazita ez dela partidua irabazten Espainian.

Eta horrela gabilza, urteak joan

urteak etorri. Auskalo zenbat Eneko eta lagun egunero ataka horretan. Euskal Herria-Madril, Madril-Euskal Herria: auto bidaiak, lanegun galduak, zenbatu ere ezin diren diru galerak...

Hori dena eta espetxea, askatasun eza. Presoarentzat eta ingurukoentzat libertaterik ez da. Epaituarentzat eta ingurukoentzat libertaterik ez da. Ezta errugabetasun presuntzioa aldarrikatzeko ere.

Demokraziaren izenean denak balio du. Terrorismoaren aitzakian denak balio du. Azken egunetako bezala. Polizia indarrek VILLABONA okupatu dute. Indarrez okupatu dute.

Okupatu dute eta txikitu egin nahi dute orain. Gazteria, herria, gizartea txikitu.

Gazte bat atxilotzea aurrena pertsona eta gero gizartea txikitzea delako. Gazte bat torturatzea aurrena pertsona eta gero gizartea

txikitzea delako. Eta bitartean politikoa, alde batekoak zein besteak, isilik. Hauteskunde osteko itsaso zakarrean murgilduta, inolako mugimendurik egin gabe. Erantzukizunik ez balute bezala.

Bada zer nahi duzue esatea: nazkatu naiz dinamika horrekin. Tortura ez baita polizia jakin batek une konkretu batean hartzen duen erabakia. Tortura politikoki baimendu eta judizialki babesten den praktika da. Praktika larria.

Orain hogeita hamar urte torturatu zen moduan, torturatu egin da gaur ere. Polizia indar guztiek torturatu dute hemen, den-denek, salbuespenik gabe. Eta horren aurrean alferrikakoak dira Eusko Jaurlaritzaren protokoloak egun batetik bestera indar gabe geratzen badira. Alferrikakoa den bezala errealtate hori ukatzea hainbeste eta hainbeste salaketa eta frogada dauden. Bistan da,

ikusitako nahi ez duenak ez du sekula ikusiko. Eta hori ez da elkar ulertzea, isilik. Hauteskunde osteko itsaso zakarrean murgilduta, inolako mugimendurik egin gabe. Erantzukizunik ez balute bezala.

Ez naiz ni alderdi politikorik defenditzen hasiko. Eskarmentu pertsonalak ez naumomentuz horretara bultzatzen. Baina giza eskubideen alde esan behar dut horrela gabilzala, pausurik eman gabe urteak joan urteak etorri. Eta nazkatu naizela dinamika horrekin. Ze barkaidazue, baina orduak, egunak, hilabeteak eta urteak aurrera doaz terrorista deitzen dieten horien bizitzetan ere. Eta, horrenbeste, guretan.

Eta bitartean zenbat Eneko eta lagun Madrilgo Genova kalean gora eta behera, Espainiako estatua defenditzen duten horien harrotasuna bera baino handiagoa den bandera hori-gorriaren azpian.

### G Gutunak

#### Ertzaintzak torturatzeari ekin dio berriro

Eusko Legebiltzarrik proposamen oso garrantzitsua onartu zuen 2006ko abenduaren 1ean, espainiar Gobernuari legedi antiterrorista indargabetu, Audiencia Nacionala desegin eta inkomunikatzea erabaki politikoa hartu beharrean izan baziren ere, aurretiko egoerara buelta zitezkeela, behar adina zirrikitu utziak baitzituzten, hala erabakiz gero, berriro torturatzeari ekin zitezketen.

Urbina atxiloturiko manifestariek gertatu horretarako baldintzak prestatzen ari zirenen lehen seinale beldurgarria izan genuen, eta zorixarrez iragarpen gaiztoenak egiaztatzen egin dira: bost urte luzeren ondoren, ertzaintza torturatzeari ekin diote berriro haien komisaria batean.

Villabonako Manex Castro gazteak torturak salatuz dizkio Audiencia Nazionalako epaileari. Inkomunikaturik eduki duten bost egunak jasanezinak egin zaizkio: atxilotuta unetik hasi ziren kolpeak eta etengabeko mehatxuak jasan ditu, batetik senide eta lagunak buruz eta bestetik Guardia Zibilek esku uztearekin, beharturiko postura eta ariketa fisikoak eginarazi dizkiote eta bere buruaren kontra aitorenak sinatu dituen arte loa galarazi.

Beraz, haien betiko tortura metodoak berreskuratzen dituzte, eta agintari jeltzaleek inongo kezkarik ez dute agertu, horrek argi eta garbi erakusten duelarik agintari horien babes osoa izan dutela hala jokatzeko. Are gehiago kontuan hartzen badugu azken urte hauetan gertatua.

Izan ere, agintari jeltzaleek ahaleginak eta bi egin baitzituzten nazioarteko erakundeek eta

kundeen presioa gero eta zorroztzagoa den!

Martxelo Otamendik duela urtebete Berriar argitaraturiko artikulu batean oso egoki zioen bezala: «Eusko Jaurlaritzak behingoz erabaki beharko du zer egin duen torturarekin. Edobadagoela eta egiturazkoa dela onartu eta behar diren neurri politikoa hartu, edo badagoela ukatu eta ezer ez egin.

Lehen aukerak (torturatu egin da eta egiturazkoa da, erabaki politikoa sendoa hartu beharko du; harreman administratiboak (edozein erakunde) eten beharko dituzte tortura zilegi egin duen administrazio batekin. Are gehiago ez du bilera operatibo gehiagorik egingo torturatu dute gortuz polizialen arduradunekin, ez lan bilerarik ez protokolo bilerarik. Ezinezkoa litzatekeelako egun batean tortura badagoela onartzea eta hurrengoan bilera egitea torturatu dituen arduradun operatiboekin».

Martxeloren artikuluak «Erabaki politikoa behar da» zuen izenburua eta argi dago agintari jeltzaleek hartua dutela erabakia, baina ez dela izan Martxelok eskatu ziena oso bestelakoa baizik: ez dute soilik erabaki Polizia eta Guardia Zibilek torturatu behar bezala aurre ez egitea; hori baino askoz ere erabaki politikoa larrirago hartu dute, Manex Castroren gertatua lekuko.

Eta horrenbestez, gure esku dago hain erabaki politikoa larrirago berriro ere uko egitea beste erremediorik izan ez dezaten. Duela urte batzuk lortu genuen, eta berriro ere lortuko dugu. Bai horixe! Behin betirako izango ahal da oraingoan!

### B Blogteka

#### Adimen emozionala gurasoen eskutik

Dakizuen bezala Adimen Emozionala aplikazioak materialetan, ikasketetan, irakasleen prestakuntza aurrera doa baina eguberri eta ihauterrien artean nahi izan duten gurasoek II. mailako adimen emozionalako ikastaroa egin dute. Azkenean hiru talde izan dira eta, guztira, 27 pertsonak egin dute. Emaila ere guraso formatzaileak izan dira kasu gehienetan.

Denon artean egin dugun balorazioa ezin hobea izan denez aurrera jarraitzeko indarrei eusten diegu. Izango duzue honen inguruko berri gehiago.

**Laskorain ikastola**  
<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/hirukide>

#### Jone Amonarrirentzat literatur saria

Tolosaldea Garatzenek lehenbiziko zati abian jarri du emakumeen emigrazioa hizpide duen literatur lehiaketa. Aurkeztu diren lanean artean Laskorain Ikastolako ikasle den Jone Amonarriren *Intzalepean* lana izendatu dute lehen sari-dun.

Hala, 200 euroko saria jasoko du datorren asteazkenean, martxoaren 11n, Tolosako Gazte Topagunean. Bertara joango gara noski, Jone Animatzera.

Topagunean, 18:00etan dugu zita!

Jone Amonarriren *Intzalepean* lana eskura duzue *Zer Berri?* Laskorain Ikastolako aldizkari digitalean.

**Laskorain ikastola**  
<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/hirukide>

**Xabier Makazaga.** Torturaren Aurkako Taldeko kidea.



**G** **Gutunak****Astelenita eta Kazkabarra**

Idatzi honen bitartez Kazkabarra aisialdi taldeak astelenitako jardunaldian izandako ezustekorengatik azalpenak emateaz gain barkamena eskatu nahi du norbait oztopatu edo asmoren bat zapuztu bazuen, eta bide batez eskerrak eman gainerako aisialdi taldeei emandako laguntzagatik, hala nola egun guztian zehar esku bat botatzeko prest agertu zirenei.

Badirudi azkeneko urteetan zorte txarreko bolada batek gure Astelenitako prestakizun guztiak atzera bota nahi dituela, baina urte urte eta gertatutakoak gertatu badira ere Kazkabarrak aurrera egiteko asmoa erakutsi du beti, eta arazoak ahalik eta bizkorren konpontzeko grina ere.

Aurten eguneko lehenengo dantza egiten ari ginela musikak huts egin zuen, eta berehala konpontzen ahalegindu baginen ere arazoen irtenbidea gure ezagutzatik haratago zegoenez teknikoaren laguntzarekin saiatu ginen

arazoa sorgailu elektriko edo generadorean baitzegoen. Musika eta bozgoragailu sistema guztia aldatzen saiatu ginen, baina honen ere behera egin zuen sorgailuaren energia emisio ezegonkorra zela eta.

Baten batek esango du ea arazoak sarritan izanik musika ekipoa edo generadorea zergatik aldatzen ez ditugun, eta azalpena honakoa da; guk izan baditugu bai musika ekipoa eta bai generadorea gure eskuetan, baina Astelenitako eguna den bezain garrantzitsua izanik guztia ongi

ateratzea bermatu nahi izaten dugu, eta bi osagarriak alokatu egiten ditugu, esan bezala funtzionamendu egokia ziurtatzen. Bada, nonbait hau nahikoa ez, eta hauek ere huts egiten dute, eta honen aurrean ezer gutxi egin dezakegu eguneko egitaraua aurrera ateratzen saiatzeaz gain.

Ohar honen bidez beraz inauterizale eta denbora libreko talde guztiei azalpenak helarazi nahi izan dizkiegu eta berriz ere gure eskerrik beroenak berretsi eskainitako laguntzagatik.

**Kazkabarra aisialdi taldea.** Tolosa



Afaltzen 60 lagun izan ziren, eta ondoren jende gehiago joan zen. R. CALVO

## Alegiakoek lortu dute lehen puntua

**Kultura** » Zazpi Astoren Gaínean «hobea» izan zen Pototxotxen aurrean, «giro bikainean» izandako BertsolarHITZA Desafioan.

### ERREDAKZIOA

Ibarrako Gaztetxean herenegun gauean BertsolarHITZA Desafioaren lehen saioa izan zen eta bertan Alegiako taldea (Zazpi Astoren Gaínean) aritu zen hobekien Ibararren aurrean. Dagoeneko, lortu du lehen puntua ligaxkan.

Beste bi saio falta dira finalaren aurretik. Pototxotx bertsos eskola-

koak Ibaratik Altzora joango dira, Elordi elkartean altzotarren aurka aritzeko. Bigarren saio eta bertsoafari hau hilaren 13an jokatu da.

Ikusleen arteko bost epaileetatik laurak Alegia bozkatu zuten eta batek Ibarra. Gogoratu behar da, epaile lana egiten duen bakoitzak ikusten duela zer hartu kontuan irabazlearen izena erabakitzeke.

Honela, datu hauek kontuan hartuko dituzte saioz saio eta finalerdiaren puntu gehien jaso dituzten bi taldeak pasako dira. Ibarra sortutako giroa «bikaina» izan zen, «gertuko» eta bertaratu zirenek «ederki pasatzeko aukera» izan zuten.

tolosaldeko, leitzaldeko eta goierriko

# ostalaritza Gida2009

Jatetxeak, sagarotegiak, erretegiak  
eta pintxo tabernak biltzen dituen  
**gidarik osatuena**



..orain **tolosaldeko**hitza.info-n ere bai!

Jatetxeen informazioa osatuena:  
argazkiak, informazio erabilgarria,  
iragarlearen webgunera link zuzena.

**Bilatzaile erabilgarria**

Hitza guztien gida **hitza.info**-n

**hitza** 



Kadeteen arteko partida erraz irabazi zuten Aurrera-Saiakoek, 22-4. E. ZEIZA

## Berriako finalerdian da Aurrera-Saiaz

**Pilota** » Atzo Huarteren aurka hiru partidak «erraz» irabazi, hemendik bi asteburutara jokatu dute finalaurrea.

### NEREA URBIZU

Aurrera-Saiaz pilota eskolakoek erraz lortu dute Berria Txapelketan aurrera egitea. Huarteren kontra zuten atzo eta 22-4, 22-6 eta 22-8 irabazi zituzten partidak, kadete, jubenil eta seniorren mailan. Beraz, finalerdian dira dagoeneko. «Ordezkoekin jokatu dute ka-

deteen mailan eta oso erraz irabazi dugu. Jubenilen mailan ere ordezkokoak etorri dira, gutxienez bat, Euskadiko Finala baitzuten. Tanteo handirik ez da izan». Bukatzeko, seniorren mailan Aurrera-Saiako Epelde-Telleteak jokatu zuten Onsalo eta E. Galarragaren lekuan, gaur Euskadiko finala baitute Zumarragan.

Aurrera-Saiaz itxaropentsu dago, «aurten talde ona daukagu eta». Hilaren 21eko asteburuan jokatu dute finalerdia, gaur erabakiko den taldearen kontra: Aldabide edo Zugarralde. Hauek Urnietan jokatu behar dute.

# Era guztietako ekitaldiak Emakumearen Egunaren harira

**Martxoak 8** » Gizarte osoari zuzendutako aldarrikapen eguna izanik, gehienbat emakumeek jarraitzen dute parte hartzen.

## ERREDAKZIOA

Euskaldunok gauza asko mahai inguruan ospatzeko ohitura dugu, gizon nahiz emakume eta atzo hainbat herritan afariak eta bazkariak egin zituzten Emakumearen Nazioarteko Eguna gogora ekartzeko. Esaterako, Leitzaan, Ugarten, Tolosan, Albizturren, Altzoran eta Hernialden. Azken honetan, 26 lagun inguru elkartu ziren Elketajatean afaltzera.

Bestela ere, hitzaldiak eta elkarretaratzeak egin zituzten hainbat herritan, gehienetan ere emakumeek bakarrik parte hartuz. Alegian, Tolosan, Elduainen, Ikaztegiatan... Villabonan Errebote plazan patata tortillak egin zituzten, bai gizonetakoek, haurrek zein emakumeetakoek. Honen helburua «etxeko lanen banaketa sinbolizatzea» zen. Berdina islatu nahi izan zuten arropa zintzilikatzean. On-

doren, patata tortillak dastatzeko aukera izan zen. Gaur elkarretaratzea eta trikipoteoa izango dira 12:00etan hasita, Errebote plazan.

Leitzaan bazkariaren ondoren trikipoteoa egin zuten. 20 lagun inguru elkartu ziren Atekabeltzen, adin diferenteetako emakumeak batuz. Gaur manifestazioa egingo dute plazatik abiatuta, 12:00etan.

Elduaingo Kultur Etxean 10 bat emakume elkartu ziren hitzaldira joateko. Jaione Frailek zuzendutako hitzaldiaren ondoren, afaria zegoen eta 30 lagun inguru joan ziren bertara.

Iruran emakume musikarien kontzertua izan zen elizan eta jende asko bildu zuen.

Tolosan elkarretaratzea egin zuten. Bertan abortuaren eskubidea aldarrikatu zuten *Abortua ez da delitua* zen. Berdina islatu nahi izan zuten arropa zintzilikatzean. On-



Villabonan patata tortillak egin zituzten eta ondoren dastatzeko aukera izan zen. E. EZBIZA



'Familia eta lana uztartzeko estrategiak' hitzaldia egin zuten Elduainen eta emakume talde bat joan zen bertara. N. URBIZU



Tolosan elkarretaratzea egin zuten, abortuaren aldeko aldarrikapena eginaz. N. URBIZU



Leitzaan 20 bat emakume elkartu ziren bazkaria egiteko. Irudian, kafea hartzen. N. URBIZU

## H Hilberria

### GUADALUPE ARISTONDO IBARRA

Andrea

Atzo hil zen, 83 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Haren senarra: Lorenzo Aranburu; seme-alabak: Joxe eta Roxali Arrizabalaga, Arantxa eta Juan Jose Uranga, Iñaki eta Arantxa Oñederra; bilobak: Ion, Nagore eta Anartz Zuazua, Beñat, Libe eta Oihan Lizaso; ahizpa: Julita; koinatu-koinatak: Patxi, Karmen, German (Jesuslaguna), Lutsi eta Laura; lidak: lehengusak eta gameriko ahizpak.

Haren animaren alde otortz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzetzela GAUR igandea, eguerdiko 12:30ean, Azpeitiko San Sebastian parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.



**AZPEITIA**  
2009ko  
martxoaren 8a

Helbidea: Julian Elorza 11, 4C  
Oharra: Hilbidea Azpeitiko Carmona tanatorioan egongo da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

## E Elkarrizketa

JOXE GASTESI ▶ Abesbatza zuzendaria eta idazlea

**Alegia** » Abesbatza zuzendari, ikastola eta lanbide eskolen sortzaile, erbesteratua Gerra Zibilean... eta orain bere oroimen eta pentsamenduen idazle da Joxe Gastesi.

JOXEMI SAIZAR

Duela hilabete batzuk Alegiako pasadizo batzuen bilduma iritsi zen nire eskuetara, 1930tik 1950era gertatutakoak, foliotan mekanografiatuak eta *Eran otros tiempos* izenburupean. Egilearen izena ez zen inon ageri, baina irakurri ahala idatzi horren atzean zegoen pertsona ezagutzeko go-goia piztu zitzaidan. Joxe Gastesi Iturriz da, Mexicon 1926an jaioa, baina txintxarria alde guztietatik. Zaragozan egin zituen perito ikasketak, CAFen lan egin zuen goi mailako postuetan, ezkondu zenetik Beasainen bizitu da erretiratu arte (orain Donostian bizi da), Goierri guraso elkarte ugari, Alkartasuna lizeoa eta Goierri Lanbide Eskola sortu zuen, Ikastolen Elkartearen sorreran ere parte hartu zuen, Txintxarri abesbatza sortu eta zuzendu zuten... Beste hainbat idatzi ere baditu, baina argitaratutako bakarra *Txintxarri abesbatza 1960-2000* liburua da.

**Noiz eta nola hasi zinen idazten?**

Erretiratu ondoren. Nire buruan ditudan ideiak azaltzeko idazten dut. Irakurri asko egin dut. Zoritxarrez ez ginen ikastolan ibili eta idazteko erraztasun handiagoa dut gatzelaniaz, nahiz eta euskalduna izan.

**Zein dira idatzi dituzunak?**

*Eran otros tiempos*, *El bilingüismo*, *Txintxarri abesbatza* (elebitan), *Los derechos de la nación vasca* eta erlijioari buruzko hainbat (*Huellas de Dios*, *Creaciono azar*, *Critica a la escatología católica*, *La Iglesia del siglo XXI*, *Creer en el ser* eta *La supervivencia*). Gero liburuxka eta faszikulobatzuk ere badituz: *Hacia la muerte del euskera* (1973an Madrilgo Hezkuntza Ministeritzan aurkeztu nuen ikastolen onarpena ofiziala eskatzeko), *Hacia la Ikastola nacional de Euskadi*, *Cultura vasca para todos los niños de Euskal Herria*, *Apuntes para un desarrollo cultural*, *Un poco de reflexión* (ikastolei buruz), *Proceso a mí fe* eta *En torno a la creación de la Escuela Profesional del Goierri*.

**Erlijioari garrantzi handia ematen diozu.**

Beti izan dut kezka hori, txikitandik, baina ez nengoen konforme elizak zuen martxarekin. Nahiko kritikoa izan naiz beti.

**Hezkuntza gaia ere jorratu duzu zure idatzietan.**

14 guraso elkarte sortu genituen Goierri. Ez zegoen ezer eta horiek gauzak mugitu zituzten gizar-



JOXEMI SAIZAR

## «Garai batean zegoen berdintasuna eta alaitasuna galdu egin da»

te mailan: langileentzako etxeak, eskolak hobetu... Gero Alkartasuna Lizeoaren sorreran lan asko egin nuen eta bertan lehendakari izan nintzen. Ikastolen Elkartearekin sortu genuen. Gogorra zen garai hura, gobernadoreak ikastola guztiak itxiko zituela esan zuen. Bilera klandestinoak izaten genituen. Goierriko Lanbide Eskola sortu eta lehendakaria izan nintzen. Orduan ez zegoen ezertxo ere egiterik eta dena gaizki ikusia zegoen. Horregatik, behin Gobernu Zibilera eraman ninduten. Meliton Manzanasko goardia zibil ezagunak bost orduko galdeketa egin zidan. Dena zekien nire buruz, ez nuen sinesten. Politikan ez nintzela sartu esan nion, gizarte mailan egiten nuela lan. CAFeko zuzendaria joan zen, nitaz erantzuten zuela esan zuen eta aske utzi ninduten. Irteeran, infernuan izkutatzen banintzen ere aurkitu egingo ninduela esan zidan Manzanasek. Handik hilabete gutxira hil egin zuten.

**Abertzaletasunaren kezka ere baduzu.**

Txiki-txikitatik bizitu dut. Osabaren etxean bizi nintzen eta Batzokikoa zen. Sabino Aranari buruz dena ikasi nuen. Orduan, gerra aurretik, Batzokiak bizitasun handia ematen zion herriari, aktibitate

asko antolatzen zirelako bertan. Batez ere Antonio Arrizabalaga alkatea eta Andres Amonarriz ziren bultzatzaile nagusiak. Beti izan naiz abertzalea. Euskaldunok gure artean ez konpontzeak min handia ematen dit.

**Gerra Zibila umetan tokatu zituztazu. Nola bizitu zenuen?**

Umea nintzela tokatu zen. Bilbora joan ginen familia osoa eta alegitar asko txalet batean egon ginen. Antonio Arrizabalaga alkateak bere paperean jarraitu zuen han, denok aukeratuta. Gogorra zen: sirena jotzen zuten oso maiz, bombardaketak izaten ziren, irailaren 5ekoa izan zen gogorrena, gosea zegoen eta ilara bat sortzen zenean han

jartzen ginen, zertarako zen jakin gabe, jateko zerbaiz izango zelakoa... Don Jose Alegiko apaiza ere han zen eta han geunden guztioi bizi guztiko barauak barkatu zizkigun, han nahikoak egin genituela eta. Gero Donibane Garazin hiru urte pasa genituen Alegira itzuli baino lehen. Oso aldatuta aurkitu genuen, beldur handia zegoen, hitz egiteko ere beldurrez bizi ginen. Errepublikar eta gudarien aldeko hiru hil ziren gerran eta bando nazionalen hamaika. Fusilatu bakarra tren geltokiko faktorea izan zen, errepublikarra zela esanda, gizon ona, ezertan sartzen ez zena. Batzuei lurrak eta jabetza guztiak kendu zizkieten. Guri ohe-

### HERRIAREN HISTORIAREN LEKUKOA

*Eran otros tiempos* liburuaeren hitzaurrean azaltzen duenez, Joxe Gastesik 1930 eta 1950 arteko Alegiako pasadizo eta pentsamendu horiek idatziz jaso zituen bere ondorengoek horien berri izan dezaten. Bere aurrekoek ere halako zerbaiz egin ez izanaz pena agertzen du. Herriko historia txikia jasotzen du liburua horretan: garaiko janari eta edariak, Karmenak eta bestelako festak, erlijio ospakizunak, musika mundua, antzerkia, politikoa giroa, herriko pertsonai bereziak... Herri gutxitan egongo da horrela jasoa altxor hori, garai bateko kronikak eta oroitzapenak.

Txintxarri abesbatzaren liburua bere sorrera, ibilbidea, gertaera nagusiak, ibilaldiak... azaltzen ditu xehetasun osoz. Hor ere herriaren historiaren zati bat jaso du.

Beste li buruetan erlijioa, hezkuntza eta politikari buruzko hausnarketak agertzen ditu gehienbat. Iritzi pertsonalagoak ageri dira hor.

ko koltxoak eta guzti kendu zizkiguten.

**Zer izan da gerra zuretzat?**

Guretzat arnasa hartzea bezala zen, gure jolasak ere gerra ziren.

**Musikak ere presentzia handia izan du zure bizitzan.**

Beti gustatu izan zait, baina estudiantu gutxi. Tolosan Frantsesetan

**Infernuan izkutatzen banintzen ere aurkitu egingo ninduela esan zidan Manzanasek.**

**Gerra Zibila guretzat arnasa hartzea bezala zen, gure jolasak ere gerra ziren.**

**Txintxarri abesbatzaren zuzendaritza hartu nuen Lukas Guridiren ondoren beste inor ez zegoelako**

ikasten ari nintzenean (gero Eskolapioetan ere ikasi nuen) Eduardo eta Ignacio Mokoroarekin zerbaiz ikasi nuen. Javier Bello Portu ere han ibiltzen zen. Gero nire gisa ikasi nuen. Don Pio Montoia apaizarekin (abertzaletasunaren goi mailan mugitu zen, Leizaola, Irujo, Monzon eta Agirrerekin askotan ikusi nuen paseatzen) hasi nintzen kantari parrokiako koroan 7 urterekin. Don Lucas Guridik 20 urtez zuzendu zuen parrokiako abesbatza eta organoa jo. Gero nik hartu nion txanda, beste inor ez zegoelako, itsuen herrian begibakarra delako alkate. Ondoren Txintxarri abesbatza sortu genuen 1960ean eta 1990 arte zuzendu nuen. Parrokiako abesbatza beranduago arte jarraitu dut.

**Alegian beti garrantzi handia eman zaio musikari.**

Beti norbaiz aritu delako bultzatzen. Lehen aipatu ditudan Montoia eta Guridiren aurretik Azurza apaiza aritu zen horretan. Musika banda bat ere izan zen. Txistua, solfeo, pianoa beti irakatsi da.

**Zure idatzietan garai bateko bizimodua jasotzen duzu. Zertan aldatu da?**

Garai batean pobretasuna zegoen, baina berdintasuna eta alaitasuna ere bai eta orain hori galdu egin da. Kallean bizi ginen denak batera eta izugarriko hartu emanak zeuden. Hori asko galduta da.

**Herriko pertsonaia bereziak ere aipatzen dituzu.**

Oso bereziak dira hori Alegiarentzat. Orain denak berdina gara, inor ez da nabarmetzen. Orduan ez, nortasun handiko jende asko zegoen orduan herrian, oso jende berezia. Hori bizitasun handia ematen zioten herriari: *Txanbolin* txistularia, Xeberino Lasa eta bere koinatua Jose Krux jokuzaleak, *Largo* pilotaria, asko ikusten zuten bi itsu, Kale Behera-ko taberna biltzen zirenak, Letamendia kafekoak...

## Eguraldiak baldintzatuta azoka egun lasai jende eta eskaintza aldetik

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna lasaia suertatu zen goiz osoan zehar, agian eguraldiak eraginda izan daiteke. Mahaietako eskaintza oraindik ez da asko aldatu, baina dirudienez, eta eguraldiak laguntzen badu, hemendik gutxira hasiko gara berrikuntzak ikusten.

Porruak, azenarioak, azak, azaloreak, bruselazak, edota azelgak izan ziren atzo nagusi, eta babak, ilarrak, eta zainzuriak izango dira garrantzitsuenak hemendik gutxira eritimoan jarraitzen badugu.

Fruta postuei dagokionez, errezi sagarrak ikusi ahal izan ditzakegu oraindik, eta dirudienez luzatu egingo da.

Atari kaleko arbola postuetan ikusi genituen erosleak; garaian gaude, eta atzo nabaritu egin zen asteroko arbolon azokan.

### » ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
<b>Landareak</b>		
Ziklamena	5,50	-
Xarbot	4,00	6,00
Biola	3,00	-

### BERTAKO PRODUKTUAK

Barazkiak (kiloa)		
Baba	3,00	4,00
Babarrun zuria	8,00	-
Kalabaza	1,50	3,00

### Barazkiak

Kiwia	3,00	-
Gardua	3,00	-

### Besteak

Ogi biologikoa (900gr)	2,20	-
Madalenak (500 gr)	3,20	-
Artisau ogia	1,00	-

### Gaztak

Behi gazta	11,00	-
Ardigazta	14,00	18,00

### PRODUKTUEKOLOGIKOAK

Arroza	4,00	-
Azukrea	3,00	3,60
Letxuga	2,50	3,00

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Okindegirako.** Langile bila. Neska euskalduna behar dugu, asteburuetan okindegi batean lan egiteko. 665 72 79 29. Eider.

### SALGAI

■ **Ukenduak.** Fistula edota erredura arazoetarako, zirujua gabe. Dena naturala. Deitu konpromisorik gabe. 618 628 311. garitxu70@hotmail.com.

# Ezker abertzaleak Garmendiari eta Castrori emandako babes eskertu du

**Villabona** » EAJren jarrera gogor salatu zuten bi atxilotuen ahaide eta lagunek, atzo goizean egindako agerraldian.

### ERREDAKZIOA

Villabonako ezker abertzaleak, Mikel Garmendia eta Manex Castoren semide eta koadrilakoek lagunduta, agerraldia egin zuen atzo goizean. Bertan, lehenik eta behin, eskerrak eman zizkieten billabonatarrei «egunotan agertutako babes eta elkartasunagatik».

Behin eta berriro salatu zuten Ertzaintzaren jarrera, eta aldi berean, «bere arduradun den EAJrena». Izan ere, beraien ustetan, «Manex eta Mikelen atxilotetak eta ondorengo kartzelaratzeak argi adierazten du EAJren apustu politikoa zein den, euskal gazteria kriminalizatu eta euskal gazteria konprometituta desaktibatzea». Bestalde, Bakartxo Tejeria EAJ zinegotziaren dimisioa eskatu zuen, gogor kritikatu, herenegunago osoko bilkurara agertu ez izana.

Garbi agertu zuten hala ere, atzokoan, «eraso» hauen ostean



Ehun lagun inguru elkartu ziren atzo goizean babes erakuskeko Castrori eta Garmendiari. ESTI EZBEZA

ere, ezker abertzaleak lanean jarraituko duela, herri hau eraikitzen. «Oraingo haserrea eta mina herri honetara benetako konponbidea ahalbidetuko duen eszenatoki berri baterako atea zabaltzen lanean jarraitzeko adorea izango da» agertu zuten, eta gaineratu, ez dituztela geratuko, «ezta gerra egitera etorri diren milaka polizia horien errepresioak ere».

Ertzaintzak Garmendia eta Castoren familiei egindako adierazpenak ere izan zituzten hipzide, adierazi zutenaren arabera «Er-

tzaintzak EAJren polizia politikoa bere protokoloa saldu dio euskal gizarteari, esaten beste polizia (estatu indarrak, ez bezala) haiek ez dutela torturatzen eta Manex basatiki torturatu du Ertzaintzak».

### Konfiantzako abokaturik gabe deklaratu du Garmendiak

Mikel Garmendia herenegun kartzelaratu izan zen Auzentzia Nazionaleko Eloy Velasco epailearen aurrean deklaratu ostean. Bere abokatuari, familiakoei bezala agerraldia baino minutu gutxi lehen-

go esan zieten orduan deklaratu behar zuela. Ondorioz, ezin izan zen joan auzitegi berezira.

Abokatuari 13:00ak aldera esan zioten minutu gutxi barru igaroko zela Garmendia epailearen aurretik. Halaber, ez zion Madrilerajoteko denborarik eman. Amnistia-aren Aldeko Mugimenduak adierazitakoaren arabera, atxilotuaren defentsak 24 ordu lehenago jakin behar du noiz deituko den akusaturia deklaratzera. Azkenik, Madrilgo zegoen beste abokatu batek defendatu zuen Garmendia.



## Auzolanaren filosofia berreskuratuz

**ANOETA** • Udaleko Ingurumen batzordeak auzolanaren filosofia berreskuratu nahi du. Duela urte batzuk egiten zen bezala, auzotarrek baserri inguruak garbi mantentzeko elkartu, eta denen artean txukuntzeko. Egitasmo hau sustatzeko, atzo Kultur Asteko ekitaldien baitan, 15 lagun elkartu ziren eta Laxarbe erreka ondo garbitu zuten. Jendeak botatako hainbat zabor bildu zuten, baina dena jasotzeko denborarik eman ez zenez, datorren larunbatean, hilak 14, berriro ariko dira. Honetarako, 09:30 inguruan elkartuko dira plazan. E.E.

### Donostia aldeko banaketa enpresa batek ADMINISTRARI-KOMERTZIALA lanpostua bete behar du

Lanpostuaren funtzio nagusia, lan komertzialak egiteaz gain, banaketa koordinatzaileekin elkarlanean kanpainen banaketa antolatzea eta haien jarraipena egitea izango da.

#### Eskaintzen da:

- Urte amaiera arteko kontratua (luzatzeko modukoa).
- Egun osoko lanaldia.

#### Eskatzen da:

- Administrazio eta merkataritza arloko ezagutzak.
- Bulegotika programen ezagutza, erabiltzaile mailan.
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako erraztasuna.
- Antolaketarako gaitasuna.
- Gida baimena eta autoa izatea.
- Lan komertzialean eskarmentu izatea baloratu da.

Curriculum vitae zehatza bidali martxoaren 10a baino lehen: gizabalabideak@jarduna.net helbide elektronikora edo Jarduna SM (Giza Baliabideak Saila) Martin Ugaldel Kultur Parkea, 20140 Andoain helbidera

Ez ahaztu erreferentzia zehatza ADMINISTRARI KOMERTZIALA (Erreferentzia: 09-ET-KOM)

**BERRI ON BAT DUGU**  
ZURE ETXETRESNA ELEKTRIKOENTZAT

**TOLOSALDEAN**  
Zerbitzu  
Ofizial Berria  
BSH Taldeko  
Markentzat

**Interservice**  
Ubarburu pasealekua, 81-  
Pol. Ind. 27 • 20014 Martutene

902 351 352



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta/Aldea:** 687 410 022. anoetaaldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibaraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Hilaren 15erako Zarate-Ubidea mendi irteera antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5), 943 652789 telefonoan edo [alpinouzturre@hotmail.com](mailto:alpinouzturre@hotmail.com)-en.  
■ **Tolosa.** Zuhaitz festa Amarozten. Azken bi urtetan jaiotako 32 haurren izenean zuhaitz bana landatu-koto dute, 11:00etatik aurrera.  
■ **Tolosa.** Barreterapia eta garapen pertsonaleko ikastaroa martxotik maiatzera: autoestima, adimen emozionala, giza harremanak, barrea... Meditazio eta izakiaren psikologia ikastaroa martxotik maiatzera. Informazioa: 943 118669.

### Zinema

■ **Tolosa.** *Una familia con clase* filma emango dute Leidor aretoan 19:30ean. *Txoriburuak* filma emango dute euskaraz 17:00etan.  
■ **Leitza.** Zinean Clint Eastwood-en *El intercambio* filma ikusteko aukera egongo da gaur 19:30ean.

### Erakusketa

■ **Tolosa.** *Sida/Ihesa 8 artista 8 hausnarketa* erakusketa Aranburu Jauregian.  
■ **Tolosa.** *Oteiza, bizirako proiektua* erakusketa Aranburu Jauregia.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.943 673649.  
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52.112.

#### Bihar

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2.943 654610  
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunikunik.

# Eskalatzaileen kabi berria

**Tolosa** » Oargi mendi elkarteak egoitzan duen rokodromoa berritu du, eta dagoeneko eskalatzeko moduan dago.

#### ERREDAKZIOA

Oargi Mendi Elkartearen egoitzan duen rokodromoa berritu du eta dudarik gabe, itxura ederra hartu du. 2008ko irailean hasi ziren berri-ritze eta handitze lanak. Hilabeteotan, Oargiko kideak soldaketa lanetan eta areto osoa egur panelez apaintzen aritu dira. Eta dagoeneko, eskalatzeko moduan dago. Orain, bazkide egiten direnek, rokodromo berrituan sartzeko giltza eskuratu ahal izango dute eta, horrela, hobeto egokitzen zaien ordutegian eskalatu ahal izango dute.

Oargiko rokodromoa gure inguruan jarri zen lehenetarikoa izan zen. Boulderrean aritzeko aretoa duela urte asko jarri zen, baina azken boladan oso jende gutxi aritu izan da bertan eskalatzen. Mendi elkarteak, ordea, bultzada bat eman nahi dio rokodromoari eta horretan aritu dira azken hilabeteotan, eraberritzea lanak egiten. Orain, instalakuntza berritua dagoen honetan, jendea gonbidatu nahi dute bertako bazkide izatera.

**192,06 metro koadroko azalera** Egungo rokodromoak 192,06 metro koadroko azalera dauka. Hauetatik 122,27 metro koadro paretatik bertikal-arrunta dira, 44,29 m<sup>2</sup> jausia du eta 25,5 m<sup>2</sup> sabaia. Paretatik hauek presa eta txapa bidez osatu dituzte, boulderraz gain 5-6 m altuera duten paretetan gora egin ahal izateko.



192,06 metro koadroko hedadura dauka orain rokodromo berriak. HITZA

#### Eskalatzeko materiala erabiltzeko aukera

Urtean 32 euro ordainduta Oargiko rokodromoan bazkide egin zaitezke. Hori, Oargi Mendi Elkartearen federatuen edo elkarte gastronomikoko bazkideen kasuan. Federatu gabeen kasuan, 50 euroko izango da kuota urtean. 22 urte-rik beherakoentzat, berriz, 5 euro baino ez.

Aipagarriena, dena den, zera da: kuota hau ordaintzen dutenek rokodromoan sartzeko giltza izateko

eskubidea izango dute, bakoitzak nahi duen ordutegian eskalatu ahal izateko.

Horretaz gain, bazkideentzat eskalatzeko materiala egongo da erabilgarri, eta eskalada hastapenerako ikastaroak jasotzeko aukera izango dute.

#### Informazio gehiago, Oargi elkartearen

Izena eman nahi duten pertsona guztiak Oargi Mendi Elkartetik pasa daitezke astelehenetan, aste-

azkenetan edo ostegunetan, 19:30etik 21:00etara bitartean.

Halaber, informazio gehiago jaso nahi duenak dei dezake telefono zenbaki honetara: 688 698 642, edo e-posta ere harremanetan jarri daitezke helbide honetara: [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org).

Oargitik egitasmo hau aurrera ateratzen lanean aritu den jende guztiari esker mila luzatu nahi dizkiete eta eskalada gozatzen dutenei edo ezagutu nahi dutenei gonbidapen irekia luzatzen diete.

## A Agurrak



#### Urte askoan!

**Intza Aduriaga Aizpurua.** Urte askoan! Gora martxoak 8.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

agurrak